

Bigarren eskuko eta trukerako azoka. Gordailuan utzitakoa saltzeko zerbitzuaren baldintzak

Antolakuntzak salmenta librerako gune bat egokituko du, eta bertan, partikularrek gordailuan utzitako objektuak jarriko dituzte salgai bertako langileek. 10:30etik aurrera utzi beharko dira gordailuan gauzak, eta gordailuan utzitako objektuen inbentarioa bete eta sinatu beharko dute parte-hartzaileek, beren datu pertsonalak emanaz.

Azoka amaitu baino ordu erdi lehenagotik salmentan lortutako dirua eman eta saldu ez diren objektuak itzuliko zaizkie gordailuan utzi dituztenei. Antolakuntzak ez du bere gain hartuko objektu horiek izan ditzaketen kalteen edo galeren gaineko erantzukizunik.